

EXOTOPONIMOEN EUSKAL FORMAZ

Donostia, 1991-XI-29

Ibon Sarasola

1.0. Gure artean aski hedaturik dagoen uste baten arabera, bi hautakizun daude kultur hitzen idazkerari dagokionez: bata Europako kultur hizkuntzena, hau da, frantsesarena, ingelesarena, alemanarena..., hitz horiek grekozko iturburuari dagokion eran idazten dituztenena, eta bestea espainol zarpailarena, kultur hitzak hitz arrunten ortografi sistemaren arabera ematen dituena. Euskaraz, gauzak behar bezala egitekotan, grekozko itxuraz eman beharko lirateke kultur hitzok. Hortaz, Euskaltzaindiak hobe zukeen, maileguzko hitz berriei buruzko erabakietan, frantsesaren, ingelesaren, alemanaren bidea hartu balu. Uste beretsuko beste hainbaten iritziz, Euskaltzaindiak ezinbestean makurtu behar izan zuen espainolaren mol-detara, gure kultur egoera eskas eta bada-ezpadakoak hartaraturik; beste hautakizuna, dudarik gabe hobe, errealismoz izan zen baztertua.

1.1. Uste hau erabat okerra da. Aski da Europako kultur hizkuntzen ortografia gaingiroki aztertzea kontuak erabat bestela direla ikusteko. Adibidez, hitz aski nazioarteko bat, espainieraz *fotografia* idazten dena hartzen badugu, ikusiko dugu *ph*-ak frantsesez, ingelesez eta alemanez soilik erabiltzen direla hain zuzen; hitz hori duten gainerako hizkuntza guztiak *f*-ez baliatzen baitira: *fotografie* idazten da txekeraz, *fotografi* danieraz, suedieraz eta norvegieraz, *fotografie* holanderaz, *fotografia* italieraz, *fotografia* polonieraz eta portugesez, *fotografie* errumanieraz, *fata-gráfiya* errusoz, *fotografija* serbo-kroazieraz, *fotograf* turkieraz; orobat *teléfono*, nahiz kasu honetan alemana ere gainerako hizkuntzetara lerratzen den *Telefon* idatziz. Halaber *teoría*, espainieraz, italieraz, portugesez, finlandieraz eta polonieraz horrela (azentuak gorabehera) idazten dena, *teori* idazten da danieraz, suedieraz, norvegieraz eta turkieraz, *teorija* serbo-kroazieraz, eta *teoriya* errusoz. Beste horrenbeste esan daiteke espainierazko *método* hitzaz: *metoda* idazten da txekeraz, errumanieraz eta polonieraz, *método* italieraz, *método* portugesez, *metode* norvegieraz, *mietod* errusieraz, *metod* serbo-kroazieraz, suedieraz eta turkieraz. *Th*-dunak frantsesez, alemanez, ingelesez eta holanderaz gertatzen dira soilik, eta kontuan hartu behar da, gainera, bi azkenotan *th* grafiak ohizkoak direla hitz

arruntetan (cf. hol. *thuis* 'etxean'). Ildo honetatik adierazgarria da ikustea nola idazten den *fisika* aztertzen ari garen hizkuntzetan: *fyzika* txekeraz, *fysik* danieraz, norvegieraz eta suedieraz, *fysikka* finlandieraz (baina kontuan har bedi, aipatu diren hizkuntza hauetan guztietan *y* grafia hitz arruntetan ere erabiltzen dela: txek. *kytice* 'lore sorta', dan. *byde* 'eskaintza', fin. *hyvä* 'ona' etab.), *physique* frantsesez, *Physik* alemanez, *physics* ingelesez, eta *fizikai* hungrieraz, *fisica* espainieraz, italieraz eta portugesez, *fizyka* polonieraz, *fizica* errumanieraz, *ffiseg* galesez, *fizika* serbo-kroazieraz eta errusieraz eta *fisik* turkieraz.

1.2. Uste dut milaren artean hautaturiko adibide hauek nahikoak direla baieztapen hauek egin ahal izateko:

a) Europako hizkuntzak, oro har, bi talde handitan bereizten dira: bata frantsesak, ingelesak eta alemanak osatzen dutena; bestea, gainerako hizkuntza guztiak hartzen dituena. Bigarren taldea, ortografia duela gutxi finkatu dutenek (cf. katalanezko *fotografia*, *telèfon*, *metode*, *teoria*, *fisica*, edo bretoierazko *fosfat*, *metodegezh* 'metodismoa', *teatr*¹) edo ortografia zaharra eraberritzeko aukera izan duten hizkuntzek osatzen dute. Lehenengo, ortografia zaharra, dena delako arrazoiakgatik, oraingoz², eraberritzeko aukera izan ez dutenak. Ez dago esan beharrik euskara, ortografia mende honetan finkatzeko aukera izan duten hizkuntzetakoa dela, eta hortaz Europako hizkuntza gehienek bidea dagokiola gureari kultur hitzen ortografiarako. Kontrara jokatzeari zentzugabekeria litzateke; zentzugabekeria irrigarria gure kasuan.

b) Ez dago, European zehar kultur hitzak idazteko ortografi azpisis-tema berezirik. Badago, oro har, ortografia zaharrari eusten dioten hiru hizkuntzetan, nahiz eta horietan ere gorabehera nabarmenak dauden³, baina ez besteetan. Honekin ez dut esan nahi ortografia berria edo eraberritua duten hizkuntzetan maileguzko hitz berriek ez dituztela arazoak sortu. Baina badirudi, salbuespen apur batzuk gorabehera, hizkun-

¹ *Fotografia*, *telefono*, *metodo*, *teoria*, *fisika* bere baitako ahalbidez eratu ditu bretoierak.

² Alemana, eraberritze sakon bat —besteak beste etorki grekozko hitzetan *ph*, *th*, *rh*-ren ordez, *f*, *t*, *r* idaztea— burutzeko zorian egon zen 1956an: eraberritzerako eratu zen Errepublik Federaleko batzordeak 14 boto aldeko eta 3 aurkakoz onartu zuen erreforma eta Errepublika Demokratikokoak ere alde agertu ziren. Austriako batzordea, aldiz, 10 eta 10 gelditu zen, eta Suitzako ia erabat agertu zen aurka, batez ere eraberritzearen beste puntu bat —izenetako hasierako kontsonante larrien kentzea gomendatzen duena— ez zuelako inola ere onartzen. Horren ondorioz, Errepublika Federalean eraberritzaren aurkako gutxiengoak ekinaldi gogorra egin zuen bere jarreraren alde "Frankfurter Allgemeine Zeitung" egunkariaren eta Darmstadt-eko Hizkuntz eta Literatur Akademiaren botoaren bidez. Hortaz erreformak porrot egin zuen azkenean (ik. Peter von Polenz *Geschichte der deutschen Sprache* (Berlin 1970); portugesezko itzulpeneko (Lisboa 1973) 222h orr.).

³ Adibidez, eredu grekozko latinezko *-izare* aditz amaiera, gaztelaniaz *-izar* eta errusieraz *-izirovat* dena, frantsesez *-iser*, alemanez *-isieren* eta ingelesez *-ise* edo *-ize* da.

tzok eskumenean zuten “material grafiko”az baliatu direla hitz berrion forma grafikoa taxutzerakoan. Host, egokitzeak gure *geologia*, *administrazio* edo *sexu*-ren mailakoak direla, gehienera jota ere. Esaterako, gorago-ko adibideez bestalde, italieraz *allegoria* idazten bada ez da jatorrizko latinezkoaren l bikoitza ordezkatzeko grafia hori hizkuntzan sartu zuelako. Hitzik arruntenetan erabiltzen zen ll-az baliatu zen hizkuntza hor. Ohizko hitzetan horrelakorik ez dutenek, polonierak, adibidez, *alegoria* idazten dute. Ordainez, italieraren ohizko baliabide grafikoetan *ct* multzorik ez zegoenez, *elettronica* edo *astratto* bezalako idazkerak ikusten dira.

1.3. Ildo honetatik uler daiteke *v*-ren auzia, gure artean halako hautsa harrotu duena: aztertu ditudan europar hizkuntza guztietan kultur hitzetan *v*-a ematen bada, ohizko hitzetan ere ematen delako da, hots, portugesez, katalanez, frantsesez, italieraz, errumanieraz, bretoiez, galesez (*f*-ez idatzia!), ingelesez, holanderaz, alemanez, danieraz, norbegieraz, suedieraz, polonieraz, txekeraz, serbo-kroazieraz, errusieraz, hungrieraz, finlandieraz eta turkieraz *v*-a *fonema* bat delako (edo espainieraren kasuan, izan delako), ez inolako kultur grafia arazorengatik. Aisa froga daiteke hori, are frantsesak *adjectif*, *subjectif* eta abar idazteko inolako eragozpenik ez duela ikusiez gero. Hortaz, ez dago inolako arrazoirik euskal kultur hitzetan *v*-rik ager dadin, euskarak ez baitu izan inoiz, iragana ezagutzen dugun neurrian, fonema hortzezpainkari ahostunik. Antzeko zerbait esan daiteke *x*-ari buruz. Euskaltzale askok uste dutenaren kontra *x* grafia kultur hitzetan ez da orokorra Europako hizkuntzetan: italieraz bestalde, gutxienez danierak, norbegierak, polonierak, serbo-kroazierak eta errusoak, eta baita ere esperantoak eta, guganik gertuago bretoierak, *ks* grafia erabiltzen dute horrelakoetan: dan. *aksiom*, *aksial*, *eksklusiv*, *eksperimentel*, nor. *aksiom*, *eskport*, pol. *aksjomat*, *ekscelencja*, *ekskluziwny*, *eksperymentalny* (eta are *egzotizm*), s.-kr. *ekselencija*, *ekskluzivan* (eta are *egzaktan*, *egzistencija*), bret. *oksid*, *oksigen* etab. etab. Eta hain zuzen, galdetu nuenean errusieraz nolatan erabiltzen den *ks*-a kultur hitzetan, erantzuna hau izan zen: *x*-az beste gauza baterako baliatzen direlako. Izan ere, euskara da Europan hizkuntza bakarra *x*-ari bi hots-balio ematen dizkiona. Honekin, bestalde, bere tasun aipagarriena galdu du euskal ortografiak: hotsen eta letren arteko ambiguoetasunik eza irakurketa mailan⁴. Ez dakit, egia esan, zer irabazi dugun galera horren truk. Eta beza inork uler honenbestez *ks* grafia proposatzen ari naizenik euskararentzat. Bestalde, badira beste bideak aipatu berri dudan ambiguoetasuna hausteko. Esaterako, P. Fabrak katalanean egin zuena: *x* grafia kultur hitzentzat gorde nahi baitzuen, *ix* ezarri zuen berezko hitz bustientzat, hots, *això*, *caixa*, *deixar* etab.

⁴ Nik neuk entzun ditut *aksola* bezalako gauzak Euskal Telebistako esatari baten ahoan.

2.0. Gaurko hautatu dudan gaiari hurbilagotik helduaz, aztertu ditudan hizkuntza guztietan bi sail bereiz daitezke geografi izenei dagokienez: bata literatur tradizioan, bertako nahiz kanpoko izan, aski ohizko gertatzen diren leku izenak osatzen dute; bestea erabat arrotz eta erabili-gabeak gertatzen direnak. Bigarrenak jatorrizko hizkuntzako ortografia berean ematen dira hizkuntza guztietan, gutxieneko egokitzeak gorabehera. Lehen sailekoak, berriz, hitz arruntetan edo kultur hitzetan erabiltzen den ortografi baliabide berez ematen dira. Hots, ez dago inongo hizkuntzetan ortografi sistema berezi bat, Europako herrialde eta hiriburu nagusiak, esaterako, idazteko. Horrela, frantsesez *espace* edo *esperance* idazten delako idazten da *Espagne*, eta ingelesez *space* idazten denez idazten da *Spain*⁵. Orobat, espainieraz *rey* idazten behar denez *Paraguay*, *Uruguay* aurkitzen ditugu, baina *rei* idazten den portugesez eta katalanez, *Paraguai* eta *Uruguai*. Era berean, italierazko *Marocco*-k *accordare* bezalakoetan hartzen du oin. Halaber *aksiom* idazten duen polonierak *Luksemburg* eta *Aleksandria* idazten ditu, eta *ekscelecja* bezala *Persja*⁶. Aurrekoen ildotik doa serbo-kroazierazko *Oksford*. *Physique* eta *appareil* idazten dituen frantsesak *Phyrgie* eta *Philippines* idazten du, *fysik* eta *apparat* idazten duen danierak, *Frygien* eta *Filippinene*, eta *fisica* eta *apparato* idazten duen italierak *Frigia* eta *Filippine*. *Antenna* idazten duen italerak *Ardenne* idazten du, eta orobat frantsesak (*antenne: Ardennes*), danierak (*antenne: Ardennerne*) edo errusierak, baina *antena* idazten duen polonierak *Ardeny* idazten du. Halaber, *s* ahoskabea *ss* grafiaz adierazten duten hizkuntzek idazten dute *Rossia* (err.), *Russia* (port., kat.), *Russie* (fr.), *Russia* (it), *Russien* (al.); gainerakoek *Rosia* (ukr.), *Rusia* (esp.), *Rusija* (s.-kr.). *Rosja* (pol.), *Rwsia* (gal.). Idazten dute. Eta abar eta abar.

Bi sailen arteko mugak ez daude askotan argi, eta, noski, aldatuz doaz hizkuntzaz hizkuntza. Nolanahi ere, eta salbuespenak salbuespen, badirudi goian adierazi dena dela legea. Eta lege horren esparruan higitu behar genuke guk ere kanpoko geografi izenak euskaraz ematerakoan.

2.1. Hortaz, Euskal Herriko toki izenak, orain, lehen ez bezala, *b-z* eta *k-z* ematen baditugu, badirudi ez dagoela arrazoirik beste horrenbeste ez egiteko euskal tradizioan erabili diren exotoponimoekin. Hots, aurreko mendeetako tradizioan *Vergara*, *Villabona* edo *Carranza* zirenak ortografia berriaren arabera *Bergara*, *Billabona*, *Karrantza* bihurtu badira, ez dago arrazoirik tradizio zaharrean *Valencia*, *Salamanca*, *Venezuela* idazten zirenak *Balentzia*, *Salamanka*, *Benezuela* ez idazteko. Izan ere, gerra aurrean hemengo izenen ortografia aldatu zenean bertakoak bezala kanpokoak

⁵ Bestalde, esaterako, *espace*, *esperance* baina *spiral*, *stroboscope* idazten dituen frantsesean *Espagne* baina *Spire*, *Strasbourg*, *Stromboli* aurkitzen ditugu.

⁶ *Aleksandria* idazten bada, eta ez *-drja* polonieraz *geografia*, *geometria* eta ez *-fja*, *trja* idazten delako da.

ere idazkera berrian emateko joera zabala gertatu zen. Gaur egun, euskara batuaren munduan, joera hori bertako izenei dagokienez indartu baina kanpokoei dagokienez ahuldu egin da. Joera bikoitz hori, gorago aipatu dudan uste okerrak ekarri duen mimetismo grafikoaren ondorio da. Hortaz, Euskaltzaindiak ahalegina egin behar luke gauzak bere onetara berriro ekartzen. Ez da hortik segitzen, noski, kanpoko geografi izen guztiak euskal grafiara egokitu behar direnik. Ildo honetatik, badugu alde zaureratik egiteko bat, zer hartzen den “gertuko”tzat eta zer “arrotz”tzat erabakitzea, alegia. Zer esanik ez, gure literatur tradizioaren azterketa zehatz bat dela bide horretatik eman behar genukeen lehen urratsa.

2.2. Dena dela, arazoa zabalagoa da. 1977an *Euskal Hiztegi Modernoa-n Egipto, Karthago* etab. proposatzen zirenean, proposamena koherentea zen kultur hitzentzat bertan ematen zenarekin. Baina Euskaltzaindiak maileguzko hitz berriei buruzko erabakiak eman zituenez gero, grafia horiek ez dute zentzurik, ez baitago hizkuntzarik, lehen adierazi dugunez, ohizko exotoponimoentzat ortografi sistema berezia erabiltzen duenik. Alde honetatik Elhuyar-en *Munduko leku-izenak* liburuko proposamenak, oro har, urrats bat aitzina dira. Baina Elhuyar-ekoen lanak badu nere ustez akats nagusi bat: erreferentzi puntutzat, espainieraz bestalde, frantsesa, ingelesa eta alemaniera hartzen direla. Hori ez zait egokia iruditzen, alde batetik gorago aipatu dudan hiru hizkuntzon ortografi egoera berezia eta gureaganik bestelakoa delako, eta bestetik mintzaira horien hots sistema aski arrotz gertatzen zaigulako hainbat puntutan, txistukarien arazoan edo hitz amaierako bokaleen kontuan, esaterako. Hortaz, komenigarria da oso hizkuntza gehiago aztertzea, eta orobat euskararen beraren izatasun fonologikoak gehiago kontuan hartzea. Adibidez, *burg*, *grad* bezalako amaierak —herskari ahostun batekin— guztiz arrotzak gertatzen zaizkio gure hizkuntzari, eta puntu horretan euskararen kide diren espainieraren, portugesarren edo italiararen eredu askozaz ere egokiagoa da. Ildo beretik, *esperantza* (eta ez *sp-*) idazten dugunez gero, *Estokolmo* (port. eta esp. *Estocolmo*, kat. *Estocolm*; cf. it. *Stoccolma*, *speranza* bezala) hobestekoa da, leku izen arrotz-tzat hartzen ez bada bederen. Orobat *Andalusia*, frantsesaren, ingelesaren eta alemanaren eredu soilari jarraitzearen ondoriozkoa, ez da batere egokia euskararentzat: irizpide horren arabera *Biskaia* (ing. *Biscay*, fr. *Biscaye*, al. *Biscaya*) idatzi beharko genuke.

2.3. Arazoak ez dira bukatzen grafia egokitze kontuekin. Askotan leku izena bera zein iturburuetatik hartu behar den da arazoa, batez ere espainieraz eta frantsesaz jatorri desberdinetako formak edo aldaera desberdinak erabiltzen direnean, *Córcega / Corse* esaterako. Horrelakoetan arazoizkoa dirudi delako tokiaren berezko izenera hurbiltzea, eta alde horretatik *Korsika* egokia iruditzen zait. Baina irizpide nagusitzat, geografi

izenak gaur egun bertako hizkuntzan duen forma hartzea gehiegizkoa eta arriskutsua iruditzen zait. Esaterako, *Egunkaria*-n erabiltzen den *Beograd* ez zait egokia iruditzen. Hiri horren izena Europako hizkuntza guztietan, serbo-kroazieran eta eslobenieran izan ezik, latinetik (*Belogradum*) egokitu dute. Denetan, are mazedonieraz, *Belgrad(o)* izan da emaitza, eta hori da guri dagokigun bidea. Orobat esan daiteke gaurko italianoek *Firenze*-z, jatorria latinezko *Florentia*-n duena. Hortaz, ez zaigu axola izan behar euskaldunoi izenak italieraz izan duen bilakaera, hori italiarren kontua baita. Orobat gaurko *Praha*, errusoz, alemanez, polonieraz eta abarrez *Prag(a)* dena. Labur bilduz, espainierazko eta frantseseko formei euskal forma bera dagokienean ez dakit zer irabazten dugun jatortasunak haratago bilatzera abiatuz.

2.4. Aurreko puntuko arazoarekin aski lotua dagoen beste puntu bat hau da: zer egin geografi izen batek bi izen dituenean, bata bertako hizkuntzazkoa, eta bestea, mende daukan estatuko hizkuntzazkoa? Argi dago bihotzaren lehen kolpea bertako hizkuntzazkora lerratzea dela. Baina bide horretatik joaz berehala datoz arazo praktikoak. Zeren ezin egin daitekeena gure artean egiten dena da: estatu menderatzailea Espainia delako katalanezko eta gailegozko izenak onartu eta bestetan hor konpon. Begien bistako kontua da, hori, azken buruan, *españolada* bat dela, hain zuen. Ez dut ikusten, euskal nazio-ikuspuntutik, zergatik idatzi behar dugun *Alacant* eta ez, aldiz, *Naoned*, bigarrena Euskal Herririk gertuago dagoelarik gainera. Antza denez katalanak, berak ere “espainolak” direnez gero, gure (hots, hegoaldekoen) anaiago dira bretoiak baino. Eta nola ez harritu *A Cruña* proposatzen den zerrenda berean, Okzitaniako Tolosarentzat⁷, euskal tradizioan beti *Tolosa* (edo Hegoaldean *Frantziako Tolosa*) izan dena, *Toulouse* proposatua ikusten denean? Eta *Asturies*, babletik hartzen bada, zergatik ez da *Vesca* aragoieratik hartzen, eta *Girona* bai, baina *Ciutat (de Mallorca)* ez da katalanez ematen? Enteratu ez garelako? Bestalde, Europa erdia baino gehiago hizkuntzaren aldetik zapaldua dagoela ikusirik, ia ezinezkoa da horien guztien bertako izenaren alde lerratuz ezer erabilgarririk egitea. Eta kontua “edo guztiak edo bat ere ez” da, neretzat, printzipioz, edo gutxienez Frantziaren mendekoak Espainiaren mendekoak bezalaxe tratatzea. Eta ez dezagun ahaztu *Lleida* ‘ezaguna’ dela esaten dugunean betiko engainagarrian erortzen garela; hots, Euskal Herria Bidasoan bukatzen dela. Bestalde gauzak areago nahas daitezke: zergatik onartu behar dugu *Central* dela “Frantziako” *Massif* delakoa, eta ez *Septentrional*, okzitaniarrentzat bezala?

2.5. Bada azken puntu txiki bat, geografi izen artikuludunei dagokiena. Frantziako *La Rochelle*, Leizarragandik hasita, *Roxela* izan da beti literatur tradizioan. *Al Qahirah* delakoa J. Izurategiren *Jerusalen-go oste-*

⁷ *Tolosa de Llenguadoc* katalanez.

ran bidaldi liburuan *Kairo* da, eta *La Coruña*, beti, Iztueta, M. Soroa, J. I. Arana, D. Agirre, J. M. Etxeita, 1932ko *Lutelestia*-n eta abarrengan *Coruña* edo *Koruña*. Eta oro har, badirudi joera nabaria dagoela euskaraz horrelako geografi izenak artikulurarrastorik gabe emateko.

3. Bukatzeko, eta erakusgarri gisa, kanpoko geografi izen arrunte-nak nere ustez eta adierazi ditudan irizpideen arabera nola eman behar liratekeen azalduko dut. Oinarritzat *Hiztegia 2000*-ko zerrendaz (955hh orr.) baliatu naiz. Literatur tradizioetiko argibideak, K. Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ko datu-oinarritik hartu ditut. Latinari eta Europaz kanpoko hizkuntzei buruzko argibideak A. Cherpillod-en *Dictionnaire étymologique des noms géographiques* liburutik (2. argitaraldia, Paris, 1990) hartu ditut batez ere.

Adriático, mar: Adriatikoko Itsaso. (*Itun Berrian* (Act 27, 27) agertzen denez, aski lekukotasun ditugu euskaraz: Leizarragak *Itsas Adriatikoan* dio, Haranederrek *Adriako* [sic] *itsasoan*, 1828koak *Adriatikoko itsasoaren gainean*. Harrezkero *Adriatikoko itsaso* da gehien erabiltzen den esapidea).

Afghanistán: Afganistan. (*gh*-a alferrikakoa da, euskal grafietan kons. + h multzorik ez dagoenez gero: cf. it., pol. etab. *Afganistan*).

Africa: Afrika. **Africa Central.** Afrikako erdialde. (*Ertafrika*-ren ert horri buruz esan behar da *erdi*-k, *mendi*-k bezala, ez duela literatur tradizioan elkartuetarako forma berezirik agertzen. *Azkueren* Hiztegian azaltzen diren lekukotasunak marjinalak dira eta antza denez analogiazkoak, literatur hizkuntzara igarotzea merezi ez dutenak; behar izanez gero *Erdi(ko) Afrika*, alemanezko *Mittelamerika*-ren antzera, erabil daiteke; eta nik bederen, aski nazioartekoa denez gero, ez dut ezer *Afrika Zentral*-en aurka). **Africa del Norte.** Afrikako iparralde, Ipar Afrika. **Africa del Sur.** Afrikako hegoalde, Hego Afrika).

Alaska: Alaska.

Albania: Albania.

Alejandría: Alexandria.

Alemania: Alemania.

Algarve: Algarbe. (Hori diote bederen A. Ibiñagabeitia eta P. Berrondoren, hitza erabiltzen duten bien, lekukotasunak).

Algérie. Ik. *Argelia*.

Alpes: Alpe mendi (pl.), Alpe (pl.).

Alsacia: Alsazia.

Alto Volta: Volta Garaia (*Volta*, euskaraz inongo tradizioerik ez duenez, izen arrotz-tzat tratatua).

Amazonas: Amazonas. (XIX. medeko lekukotasun bat dago, J. I. Aranarena (*Slgn* 213), *Amazona aldean* diona, baina mende honetako agerraldi guztiak *Amazonas* dakarte).

Amberes: Anberes. (Tradizioan Hegoaldean *Anberes* agertzen da (baita *v-z* eta *m-z* ere). Iparraldean lekukotasun bakarra aurkitu dut Laphitzearena (101) *Amberz* diona. Oskilasok *Anvers* erabiltzen du. Hitz germaniarra Txillardegik (*Elsa S.*) erabili du *Antwerpen* forman. Hizkuntza eslabiarrak forma germaniarretara lerratzen dira antza denez. Latin hizkuntzetan, port. *Anveres* (eta bigarren mailako bezala *Antuérpia*), esp. *Amberes*, fr. eta kat. *Anvers*, it. *Anversa*, dugu. Nere ustez, hobe da guk ere latin hizkuntzen formaren gain era dezagun gurea, nahiz *Antwerpen* edo onar daitekeen bigarren mailan).

América: Amerika (Batez ere pl.). **América Central, Centroamérica.** Amerik(et)ako Erdialde, Erdi(ko) Amerika (ik. **Africa**). **América del Norte, Norteamérica.** Ipar Amerika (sing. eta pl.), Amerik(et)ako Iparralde. **América del Sur, Sudamérica.** Hego Amerika (sing. eta pl.), Amerik(et)ako Hegoalde.

Amsterdam: Amsterdam.

Anatolia: Anatolia.

Andaluzia: Andaluzia. (Horrela agertzen da euskal tradizioan [25en bat agerraldi], Iparralde nahiz Hegoaldekoan; ik. gainera gorago 2.2.).

Andes, cordillera de los: Ande (pl.), Ande mendi (pl.).

Andorra: Andorra.

Angola: Angola.

Angoulême. Ik. **Angulema.**

Angleterre. Ik. **Inglaterra.**

Angulema: Angulema. (Euskaraz Intxauspe eta G. Arruegan aurkitu dut, biengan *Angulema* eran).

Antártico, océano: Antartiar ozeano. (Nere ustez hobeki egokitzen zaio euskarari espainieraren, katalanaren eta italoinoaren grafia, *nkt* mul-zoa bakuntzen duena).

Antártida: Antartida. (Ik. aurreko sarrera).

Antillas: Antilla (pl.). [*Antilla uharteak. Antilla Handiak.*]

Antioquia: Antiokia.

Anvers. Ik. **Amberes.**

Aosta: Aosta.

Apeninos: Apenino (batez ere pl.), Apenino mendi (pl.).

Aquitania: Akitania.

Arabia Saudita: Saudiar Arabia. (Badirudi *Saudita* edo *Saudi* hor izenlaguna dela, ez aposizioa). **Arábiga, península:** Arabiar erdiharte.

Aragón: Aragoi. (Literatur tradizioan gehien agertzen den aldaera *Aragoi* da: Hegoaldeko Iztueta, J. I. Arana, G. Arrue, Txirrita, J. M. Barandiaran, J. Etxaide, P. Berrondoren, eta Iparraldeko Mirande eta Arradoiren lekukotasunak dituen; *Aragoe* Kirikiñok darabil, *Aragoa* Lizarraga nafarrak eta Orixek; Hiribarrenek *Aragon* eta *Aragona*, E. Zubirik *Aragon*, J. Etxeparek *Aragonia*, Mendigatxa erronkariarrak *Arago*, eta Xarlemagne pastoralan *Aragu*. Bestalde, *Aragoi* da forma erregularrena, *balkoi*, *bastoi* eta abarren arabera).

Arcadia: Arkadia.

Argelia: Algeria. (Forma hau Hegoaldeko tradizioan ere (A. Anabirtartek, *Aljeria*) erabiltzen da; *Argelia* (eta *Arjelia*) Kirikiñorengan soilik aurkitu dut).

Argentina: Argentina. (*Argentina*, *Arjentina* baino gehiago erabiltzen da, eta maileguzko hitz berrien ortografiaren arabera egokiagoa dirudi).

Armañac: Armañak [?].

Armenia: Armenia.

Armórica: Armorika.

Artico, océano: Artiar ozeano. (Ik. **Antártico**).

Asia: Asia. **Asia Menor:** Asia Txikia.

Asiria: Asiria.

Asturias: Asturias. (Hiribarrenek eta J. A. Mogelek *Asturia* erabiltzen dute; gainerako guztiak *Asturias*; ik. bestalde 2.4).

Atenas: Atenas.

Atlántico, océano: Atlantiar ozeano.

Australia: Australia.

Austria: Austria (Cf. lat., it., port. ing. *Austria*, err. *Avstria*, hung. *Ausztria*; ik. 2.3.).

Auch: Aux.

Autriche. Ik. **Austria**.

Avila: Abila. (Horrela idazten dute J. J. Mogelek eta Laphitzek aurreko mendean eta Txirritak, Gazteluk, P. Berrondok eta Arradoik mende honetan).

Aviñón: Abiñon, Avignon. (Lehena euskal grafiara egokitua; dena dela aurreko mendeko eta mende honetako lekukotasun guztietan *Avignon* (edo gutxiagotan *Aviñon*) agertzen da).

Azerbaiján: Azerbaijan? (Izen arrotz-tzat hartuko balitz, ez dago bate-re argi zein litzatekeen egokitzapen egokiena: cf. ing. *Azerbaijan*, fr. *Azerbaidjan*, kat. *Azerbaijan*, al. *Aserbidschan*; bertako hizkuntzan, errusieraz).

Azores: Azore (pl.), Azore uharte (pl.).

Babilonia: Babilonia.

Badajoz: Badajoz.

Bagdad: Bagdad.

Bahamas: Bahama (pl.), Bahama uharte (pl.).

Balcenes, montes: Balkan (pl.), Balkan mendi (pl.). (1932ko *Lutelestia*-n *Balkan mendiak* esaten da, eta cf. dan. *Balkan(statene, -bjergene)*). Dena dela *balkandar* izenlaguna ere erabil daiteke). **Balcánica, península:** Balkandar erdiuharte.

Bâle. Ik. Basilea.

Baleares, islas: Balear uharte (pl.), Balear (pl.).

Báltico, mar: Baltiar itsaso. (Era berean *Baltiar herrialdeak*. Cf. err. *Baltiiskoie morie*, al. *Baltisches Meer*; dena dela 1932ko *Lutelestia*-n, *Baltiko itsasoa*).

Bangladesh: Bangladesh.

Bangkok: Bankok.

Barbados, isla: Barbados uharte.

Barcelona: Bartzelona.

Bashkiria: Baxkiria.

Basilea: Basilea. (Lat. *Basilea*; ik. 2. 3.).

Baviera: Babiera. (Horrela idatzia Kardaberazengan (*Just* 65); formari buruz, nahiz lat. (eta ing.) *Bavaria*, cf. fr. *Bavière*, esp. it., port. kat. *Baviera*).

Bearne: Biarno. (Horrela agertzen da euskaraz dagoeneko XVI. mendean).

Beirut: Beirut.

Belem: Belem.

Belén: Belen edo Betleem. (Lehenengoa batez ere Hegoaldeko tradizioan erabiltzen da, eta bigarrena batez ere Iparraldekoan. Lat. *Bethlehem*, fr. *Bethléem*).

Bélgica: Belgika (Lat. *Belgicum*; nahiz era *j*-dunak tradizio hobearen duen Iparraldean nahiz Hegoaldean, beharbada egokiagoa de era *g*-duna, maileguzko hitz berrien ortografiaren arabera).

Belgrado: Belgrado. (Ik. 2.3.).

Bengala: Bengala.

Berberia: Berberia.

Berlín: Berlin.

Berna: Berna.

Bethléem. Ik. **Belén**.

Bielorrusia: Bielorrusia.

Birmania: Birmania.

Bizanzio: Bizantzio. (Cf. lat. *Byzantium*, turk. *Bizans*).

Bogotá: Bogota.

Bolivia: Bolibia. (Simon Bolibar euskaldun jatorriko jeneralaren izenetik eratorria. Literatur tradizioan Orixengan agertzen da, *Bolibi(a)* idazkeran beti).

Bolonia: Bolonia. (Are Iparraldean idazkerarik erabiliena).

Bonn: Bonn.

Bordeaux. Ik. **Burdeos**.

Borgoña: Borgoña. (Hegoaldean *Borgoña* idazkeran agertzen da. Egia-tegi zuberotarrak *Borgoiña* eta *Borgoina* idazten du. Cf. it. *Borgogna*, port. *Borgonha*, kat. *Borgonya*, latinezko *Burgundia*-tik; amaierako *-ñ-z*, cf. *Urduña* Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko udalen izendegia*-n).

Bósforo: Bosforo. (Lat. *Bosp(h)orus*).

Bourgogne. Ik. **Borgoña**.

Brabante: Brabante. (G. Arruek forma horretan erruz erabilia).

Brandenburgo: Brandenburgo. (Cf. fr. *Brandebourg*, baina al. *Brandenburg*. Ik. 2.2).

Brasil: Brasil. (Cf. port. *Brasil*).

Brazzaville: Brazzaville.

Brésil. Ik. **Brasil.**

Bretaña: Britainia, Breizh. (Cf. lat. *Britannia*, ing. *Brittany*. Literatur tradizioan batez ere *Bretania* erabili da. Dena dela, hobestekoa dirudi, analogiaz, *Bretainia*-k, *Itsasoko nabigazionea*-n eta J. Etxeparegan agertzen dena. *Breizh* J. Mirandek eta A. Ibiñagabeitiak erabili dute). Cf. **Gran Bretaña.**

Britania: Britania. **Islas Británicas:** Britaniar uharte (pl.).

Brujas: Bruges, Brujas. (Cf. esp. *Brujas*, baina fr., port., it., kat. *Bruges*).

Bruselas: Bruxelas, Brussel. (Cf. lat. *Bruxellae*, port. *Bruxelas*, fr. *Bruxelles*, it. *Brusselle* [sesso 'sexu' bezala], eta pol. *Bruksela*. *Brussel* (cf. flam. *Brussel*) Txillardegik (*Elsa S.*) erabili izan du).

Bucarest: Bukarest.

Budapest: Budapest.

Buenos Aires: Buenos Aires. (Baina, tradizioaren arabera, *Buenos Airesetan* etab.).

Bulgaria: Bulgaria.

Burdeos: Bordele. (Gaur egun Iparraldean gehiago erabiltzen den *Bordale* baino zaharragoa eta hedatuago da).

Burgos: Burgos.

Byzance. Ik. **Bizancio.**

Cáceres: Caceres. (Tradizioan agertzen ez denez gero [*Kazeres*, dena dela, 1932 ko *Lutelestia*-n], arrotz-tzat hartua).

Cachemira: Kaxmir. (Urdu *Ka^smir*; Cf. kat. *Caixmir*, dan. *Kashmir*, it. *Cascimír*).

Cádiz: Kadiz. (Tradizio hobia du *c*-dunak baino; eta cf. err. *Kadis*).

Cafarnaún: Kafarnaun.

Caire, Le. Ik. **El Cairo.**

Calahorra: Kalahorra. (Orixe da bakarra *Kalaguri* erabiltzen duena).

Calcuta: Kalkuta.

Caldea: Kaldea.

California: Kalifornia.

Camboya: Kanbodia. (Cf. ing. *Cambodia*, dan. *Cambodja*; dena den, al. *Kambodscha*, *Aserbidschan* bezala, eta orobat katalanez, biak *-tj-z*). Ik. **Kampuchea**.

Camerún: Kamerun.

Canadá: Kanada.

Canarias, islas: Kanaria (pl.), Kanariar uharte (pl.). (Cf. al. *die Kanarischen Inseln*, hots, adjetiboa).

Caracas: Karakas. (Cf. err. *Karakas*).

Carelia: Karelia.

Caribe, mar: Karibear itsaso (Cf. ing. *Caribbean Sea*, al. *Karibisches Merr*, err. *Karibskoie more*, hots, adjetiboa hiru kasuetan).

Cárpatos (montes): Karpato (pl.), Karpato mendi (pl.).

Cartago: Kartago.

Caspio, mar: Kaspiar itsaso. (Cf. ing. *Caspian*, fr. *Caspienne*, al. *Kaspisches*).

Castilla: Gaztela.

Kataluña: Katalunia.

Cáucaso: Kaukaso, Kaukaso mendi (pl.).

Ceilán: Zeilan. Ik. **Sri Lanka**.

Centroamérica. Ik. **América**.

Cerdeña: Sardinia. (Lat. *Sardinia*).

Ceylan. Ik. **Ceilán**.

Chili. Ik. **Chile**.

Cícladas: Ziklada (pl.), Ziklada uharte (pl.).

Colombia: Kolonbia.

Colonia: Kolonia. (Lat. *Colonia*).

Congo: Kongo.

Constantinopla: Konstantinopla. (Tradizioan formarik erabiliena *Konstantinopla* da, Hegoaldekoek eta Iparraldeko Haranburuk erabiltzen dutena. Iparraldean agerraldi gehien dituen era *Konstantinople* da (Leizarraga etab.). *Constantinoble*, *Costantinobla*, *Konstantinopole* eta *Konstantinopoli*-ren adibide apur batzuk ere badira. Cf. fr. *Constantinople*, port. *Constantinopla*, kat. *Constantinobla*, it. *Constantinopoli*).

Copenhage: Kopenhage. (Cf. dan. *København*; aztertu ditudan hizkuntza guztietan agertzen da *nh* multzoa; bukaerako *-n*-ari dagokionez, espainierak, frantsesak, portugesak, polakoak ez dute; ingelesak, alemanak, katalanak, italianoak, errusoak, bai).

Córcega: Korsika. (Lat. *Corsica*, pol. *Korsyka*).

Córdoba: Kordoba. (Cf. fr. *Cordoue*, port. *Córdova*, it. *Còrdova*, err. *Kordova*; Literatur tradizioko adibideak, are Iparraldekoak, *-oba*-dunak dira, S. Pouvreau-ren *Cordua* bat izan ezik).

Corea: Korea.

Corinto: Korinto.

Cornualles: Kornualla, Kornualles. (Cf. korn. *Kernow*, ing. *Cornwall*, fr. *Cornouailles*, esp. *Cornualles*, *Cornualla*, port. *Cornualha*, kat. *Kornualla*, it. *Cornovaglia*; J. Mirandek *Kornualla* eta, batez ere, *Kornubia* erabili ditu).

Corse. Ik. **Córcega**.

Côte d'Ivoire. Ik. **Costa de Marfil**.

Costa de Marfil: Boli Itsasaldea.

Costa Rica: Costa Rica.

Cracovia: Krakobia (Cf. lat. *Cracovia* edo *Carcobia*).

Creta: Kreta.

Croacia: Kroazia.

Cuba: Kuba. (Cf. al, s.-kr., pol. err. *Kuba*).

Chad: Txad. (Cf. kat. *Txad*, al. *Tschad*). **Lago Chad:** Txad aintzira.

Chanpaña: (T)xanpaña. (Cf. port. *Champanha*, kat. *Xampanya*. It. *Sciampagna*; pol. *Szampania*; amaierako *-ñ-z*, cf. *Urduña* Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko udalen izendegia*-n).

Checoslovaquia: Txekoslovakia. (Horrela idatzia agertzen da, literatur tradizioan aurkitu ditudan lekukotasunetan (1932ko *Lutelestia*, Lizardi, Alzola; cf. kat. *Txecoslovàquia*).

Chicago: Chicago. (Euskal testuetan, J. Etxeparek, Kirikiñok eta K. Mitxelena *Chicago*; 1932ko *Lutelestia*-k *Txikago*).

Chile: (T)xile. (Cf. it. *Cile*, kat. *Xile*, err. *Txili*).

China: (T)xina.

Chipre: (T)xipre (Cf. fr. *Chypre*, it. *Cipro* (*Cile* bezala), port. *Chipre*, kat. *Xipre*).

Dahomey: Dahomey. (Arrotz-tzat hartua; gaur egun **Benin**).

Dalmacia: Dalmazia.

Damasco: Damasko. (Hegoaldean eta Urtek *Damasko*; Haraneder-ek *Damasco* eta *Damasze*, Leizarragak *Damasce*, eta Iparraldeko gainerakoak *Damas*. Cf. lat. *Damascus*, fr. *Damas*, port., it. *Damasco*).

Danubio, río: Danubio ibai. (Cf. lat. *Danubius*).

Dax. Akize.

Dinamarca: Danimarka. (Cf. fr. *Danemark*, it. *Danimarca*, dan., nor., sued. *Danmark*).

Djibuti: Jibuti. (Amarikoz eta arabieraz *Jibuti*, it. *Gibùti*).

Dolomitas, montes: Dolomita (pl.), Dolomita mendi (pl.).

Dublín: Dublin. (Nahiz irlanderazko izen ofiziala *Baile eta Cliath* den, *Dublin*-en etorkia zelta da: irl. *Dubh-linn*, bret. *Dulenn*, gal. *Dulyn*).

Dunkerque: Dunkerke.

Ebro, río: Ebro ibai.

Ecosse. Ik. **Escocia**.

Ecuador: Ekuador. (Cf. fr. *Équateur*).

Efeso: Efeso. (Cf. lat. *Ephesus*).

Egipto: Egipto. (Ik. 2. 2).

El Cairo: Kairo. (Ik. 2.5; Cf. port., ing., it. *Cairo*, al. *Kairo*).

Eritrea: Eritrea.

Eskandinavia: Eskandinabia. (1932ko *Lutelestia*-n *Eskandinabi* eta S. Mitxelenak *Eskandinabia* dira aurkitu ditudan agerraldi bakarrak).

Escocia: Eskozia. (Cf. lat. *Scotia*).

Eslovenia: Eslobenia. (Horrela ikusten da *Herria* astekarian).

Esmirna: Esmirna. (Cf. lat. *Smyrna*).

España: Espainia. (Erarik erabiliena, betidanik Iparraldean eta gaur egun baita ere Hegoaldean).

Esparta: Esparta. (Cf. lat. *Sparta*).

Estambul: Istanbul. (Cf. turk., fr., it., kat. etab. *Istanbul*, port., *Istambul*).

Estocolmo: Estokolmo. (Ik. 2.2.).

Estonia: Estonia. (Cf. est. *Eesti*, err. *Estonia*).

Estrasburgo: Estrasburgo. (Ik. 2.2.).

Etiopia: Etiopia. (Cf. lat. *Aethiopia*).

Europa: Europa. **Europa Central:** Europako Erdialde, Erdi(ko) Europa (ik. *Africa*). **Europa del Norte:** Ipar Europa, Europako Iparralde. **Europa del Sur:** Hego Europa, Europako Hegoalde. **Europa Occidental:** Europako Sartalde (Mendebal), Sartaldeko (Mendabaleko) Europa. **Europa Oriental:** Europa Sortalde (Ekialde), Sortaldeko (Ekialdeko) Europa.

Extremadura: Estremadura. (Horrela idatzi da beti literatur tradizioan, Iztuetatik hasita; Cf. it. *Estremadura*).

Fenicia: Fenizia.

Fiji: Fiji.

Filadelfia: Filadelfia. (Cf. It., kat. *Filadelfia*).

Filipinas, islas: Filipina (pl.), Filipina uharte (pl.). (Ik. gorago 2.0).

Finlandia: Finlandia, Soumi.

Flandes: Flandes. (Hegoaldeko tradizioak era hori erabiltzen du, eta Iparraldekoak *Flandres*, J. Mirandek *Flandria*. Cf. flam. *Vlaanderen*, al. *Flandern*, port. *Flandres*, (*Frandes*), it. *Fiandre*, kat. *Flandes*).

Florenzia: Florentzia. (Ik. 2.3. Cf. it. zah. *Firenza*; *Floren(t)zia* da, bestalde euskaraz erabili den forma).

Formosa: Formosa. (Cf. port. *Formosa*). Ik. **Taiwan**.

Francia: Frantzia.

Frankfort: Frankfurt. (Cf. lat. *Francofurtum*, port., it. *Francoforte*, al., kat. *Frankfurt*, fr. *Francfort*. Aurkitu dudak lekukotaun bakarra, K. Mitxelena-rena, *Frankfurt*-ena da).

Friburgo: Friburgo. (Cf. lat. *Friburgum*, it. *Friburgo*, port. *Friburgo*. Hiru lekukotasun aurkitu ditut, Hegoaldekoak, hirurak *Friburgo*-renak).

Frigia: Frigia. (Ik. gorago 2.0).

Gabón: Gabon.

Galacia: Galazia.

Gales: Gales, Gales Herria. (Bi forma horietan agertzen da literatur tradizioan).

Galia: Galia.

Galilea: Galilea.

Galicia: Galizia. (Cf. port. *Galiza*, gal. *Galizia* (*Galiza*). *Galizi(a)* [inoiz edo behin *Galitzia*] da gure literatur tradizioko forma).

Galicia (Poloniakoa): Galitzia. (Pol. *Galicja*, err. *Galitsia*, kat. *Galitzia*).

Gambia: Ganbia.

Ganges, río: Ganges ibai. (Cf. lat. *Ganges*).

Garona, río: Garona ibai. (Cf. lat. *Garumna*, *Garunna*, *Garonna*, okz. kat. *Garona*).

Gascuña: Gaskoinia, Gaskoina. (Ez dago lekukotasun gehiegirik tradizioan. *Xarlemagne* pastorealean *Gasko(i)ña* agertzen da, eta Hiribarrenek *Kaskoinia* erabiltzen du. Ez dut uste *Katalonia* idazteko arrazoiak hemen balio dutenik).

Gênes. Ik. **Génova.**

Genève. Ik. **Ginebra.**

Génova: Genoba. (Cf. lat., al. *Genua*, baina kors. *Génuva*, it. port. kat. *Génova*, fr. *Gênes*).

Georgia: Georgia.

Germania: Germania.

Gerona: Gerona. (Cf. fr. *Gérone*. Ik. 2. 4.).

Getsemaní: Getsemani. (Cf. lat. *Gethsemani*. Tradizioko forma, Iparaldean nahiz Hegoaldean *Getsemani* (da).

Gibraltar: Gibraltar. **Estrecho de Gibraltar:** Gibraltarreko itsasarte.

Ginebra: Geneba, Ginebra. (Cf. lat. *Genava*, *Geneva*, fr. ing. *Genève*, baina port. *Genebra*, it. *Ginevra*, rom. *Genevra*, kat. *Ginebra*).

Glacial, océano: Izotz itsaso. (Cf. 1932ko *Lutelestia-n Itsas-Izoztua*).

Gran Bretaña: Britainia Handi [?]. (Cf. lat. *Britannia*, ing. *Great Britain*. Hitz Mirandengan soilik aurkitu dut, *Bretania Handia*. Cf. **Bretaña**. Gaur egungo erabilera (Hegoaldekoa) ikusirik, behar bada *Britainia Handi* onartu behar litzateke, nahiz eta *Bretania* / *Britainia Handia* bikoiztasuna, inguruko hizkuntzetan ohi ez dena, egitera behartzen duen; ik. dena dela ingelesa, eta pol. *Bretania* / *Wielka Brytania*).

Grecia: Grezia.

Groenlandia: Groenlandia.

Guatemala: Guatemala.

Guayana: Gu(a)iana. (Cf. ing. *Guiana*, al. *Gu(a)yana*, fr. *Guyane*, it., kat. *Guaiana*).

Guinea: Ginea. **Golfo de Guinea:** Gineako golko. **Guinea Equatorial:** Ginea Ekuatorial. (Cf. ing. *Equatorial Guinea*, al. *Aquatorial-Guinea*).

Gujerat: Gujarat. (Cf. hind. *guj(a)rat*, fr. *Gujerat*, *Gujarat*. Gaur egun, espainieraz ere, joera *Gujarat*-en aldekoa dirudi).

Gulf stream: Golkoko (itsas) lasterra.

Haiti: Haiti.

Hamburgo: Hanburgo. (Cf. lat. *Hamburg(i)um*, it. *Amburgo*, port *Hamburgo*; euskal testuetan, Hiribarrenek *Hambourge* eta B. Atxagak, hitza gehien erabili duenak, *Hamburgo*).

Hawai: Hawai. (*Hawaii* grafia, Europan boladan dagoen amerikanismo bat da, onar daitekeena, noski).

Helvecia: Helvezia. (Cf. lat. *Helvetia*; v-rekin izen arrotz-tzat hartua).

Hercegovina: Hertzegobina. (Edo *Herzegovina*, arrotz-tzat hartua; grafia egokitzekotan ez da ikusten zergatik *tz* onartu behar litzatekeen eta b ez; ik. 1.2, b).

Hibernia: Hibernia.

Himalaya, cordillera: Himalaia mendi (pl.). (Cf. kat. *Himàlaia*, it. *Imalaia*. Eta *mendi*-rentzat, cf. ing. *Himalayas mountains*).

Hispania: Hispania.

Holanda: Holanda. (Cf. hol. *Holland*, fr. *Hollande*, port., kat. *Holanda*, it. *Olanda*, pol. *Holandia*, s.-kr. *Holandija*).

Honduras: Honduras.

Hongrie. Ik. **Hungría.**

Huesca: Hueska. (Mende honetako tradizioan, *Huesca* Orixek eta I. Munitak, baina *Hueska* E. Zubirik, eta *Ueska* 1932ko *Lutelestia*-k; bestela *Oska* behar luke; cf. lat., *Oscā*).

Hungria: Hungria. (Cf. lat. *Hungaria*, *Onoguria*, fr. *Hongrie*, kat. *Hongria*, port. *Hungria*, it. *Ungheria*. Euskal tradizioan, (*H*)ongria Iparraldean eta *Hungria* Hegoaldean aurkitu ditut; -o- aldaera egokiagoa dela pentsa dezake norbaitek euskara batuan, *non / nun, ontsa / untsa* etab.-etan bigarrenak dialektaltzat jotzen direlako; baina badirudi kasu honetan aplikatu behar den legea lat. *mundum* → eusk. *mundu* [cf. fr. *monde*, kat. *mòn*] dela).

Iberia: Iberia. (Cf. lat. *Iberia*, sartaldekoa nahiz Kaukasokoa; baita euskaraz ere: cf. Zaldubi (396) *Ekhalde Iberria*, alegiazko etimologia batez, Orixe *Euskaldunak*-ean *Ekhalde Iberia*-ra aldatua). **Península Ibérica:** Iberiar erdiuhartea. **Meseta Ibérica:** Iberiar goi ordokia.

Yenisei, río: Ienisei. (Cf. err. *Ienisei*).

Iliria: Iliria. (Cf. lat. *Illyria*).

India: India. **Indico, océano:** Indiar ozeanoa.

Indonesia: Indonesia.

Inglaterra: Ingalaterra. (Hegoaldeko tradizioan *Ingalaterra* aski erabilia izan da, eta era bera erabiltzen dute Axularrek eta J. Mirandek. Bestela, Hegoaldean *Inglaterra* eta Iparraldean gehienbat *Angleterra*).

Irak: Irak.

Irán: Iran. **Meseta de Irán:** Irango goi ordokia.

Irlanda: Irlanda. (*Irlanda* da tradizioan erabili den forma. *Eire* Mirandek erabili du, eta berak eta Lizardik *Erin*).

Islandia: Islanda, Islandia. (Ingelesak, frantsesak, alemanierak, italiakoak, polonierak, errusierak eta abarrek amaiera bera ematen diote *Irlandari* eta *Islandia*-ri; *Geneva* proposatzen dutenek arrazoi gehiagorekin proposatu behar lukete *Islanda*).

Israel: Israel.

Italia: Italia.

Jakarta. Ik. **Yakarta.**

Jamaica: Jamaika.

Japón: Japonia. (Euskal literaturan agertzen diren aldaeren artean tradizio hoberena duena *Japonia* da).

Jartún: Jartun, Khartun. (Arab. *al-hurtum*; cf. al. *Chartum*. Ik. 2.5).

Jericó: Jeriko (Horrela agertzen da mende honetako testuetan, are Iparraldekoetan).

Jerusalén: Jerusalem, Jerusalem. (Tradizioan, Iparraldean beti *-em* aurkitu dut [-*eme* Leizarragak eta beste zaharren batek], eta *-en* gehienbat Hegoaldean. Kanpoko hizkuntzetan ohizkoagoa da *-em* amaiera, baino badirudi euskarak berezkoagoa duela *-en*).

Jordania: Jordania.

Kamchatka, península de: Kamtxatka erdiuhartea.

Kampuchea: Kampuchea. (Antza denez, inguruko hizkuntza guztiak inongo egokitzapenik gabe ematen dute). Ik. **Camboya**.

Kenya: Kenia. (Cf. al, err. *Kenia*. Dena den, ingelesezko *Kenya*-ko *-ny*-a ez da /ñ/-a markatzeko modu bat besterik: cf. Kolorado-ko *Grand Canyon*-a).

Kuwait: Kuwait. (Frantsesa da, antza denez *Kowait* grafia erabiltzen duen bakarra; cf. ar. *al-kuwayt*).

Kurdistán: Kurdistan. (Cf. kurd. *Kurdestan*, turk., ar., err., fr. *Kurdistan*, iran. *Kordestan*, ing. *Kurdistan*, *Kurdestan*, *Kordestan*).

Lacedemonia: Lazedemonia. (Cf. lat. *Lacedaemon*; ing., fr., port. it., kat., *-c-*. Ez dut ikusten zergatik proposatzen duen *Hiztegia 2000*-ak *Lakedemonia*, baina *Mazedonia*. Arazoa, izatekotan, *-onia* amaieran legoke, ez baita hain orokorra; baina cf. Axular *Lazedemonia*).

La Coruña: Koruña. (Cf. fr. *La Corogne*; artikulua, ik. 2. 5).

Ladoga, lago: Ladoga aintzira. (Cf. fin. *Laatokka*, eston. *Laadoga*, err. *Ládoga*).

La Haya: Haia. (Cf. fr. *La Haye*, kat. *l'Haia*, it. *l'Aia*, port. *Haia*; artikulua, ik. 2. 5).

Laos: Laos.

Laponia: Laponia. (Cf. fr. *Laponie*).

Lasha: Lasa. (Cf. fr. *Lhasa*, *Lhassa*, *Lasa*, ing. *Lasha*, *Lasa*).

Lausana: Lausana.

León: Leon.

Lérida: Lerida. (Ik. 2.4).

Lesotho: Lesoto.

Letonia: Letonia. (Cf. fr. *Lettonie*).

Libano: Libano. (Cf. lat. *Libanus*).

Liberia: Liberia.

Libia: Libia. (Cf. lat. *Libya*, it. *Libia*, port., kat. *Libia*).

Lisboa: Lisboa. (Hegoaldean beti *Lisboa*; Iparraldean *Lisboa* eta *Lisbona*).

Lisbonne. Ik. **Lisboa**.

Lituania: Lituania. (Cf. fr. *Lituanie*, ing. *Lithuania*, It. *Lituania*, Port. *Lituânia*, kat. *Lituània*).

Logroño: Logroño.

Lombardía: Lonbardia.

Londres: Londres. (Cf. fr. *Londres*. Iparraldeko nahiz Hegoladeko tradizioan, *Londres*; Kirikiñok, Lizardik, J. Eguskitzak eta J. Mirandek *London*).

Lorena: Lorrena. (Hitza Iparraldeko tradizioan agertzen da, beti *Lorrena* idazkeran; cf. fr. *Lorraine*, latinezko *Lotharingia*-tik datorrena).

Luxemburgo: Luxenburgo. (Ik. 2. 3).

Mazedonia: Mazedonia. (Cf. lat. *Macedonia*).

Madagascar: Madagaskar. (Cf. malg. *Madagasikara*).

Madeira, islas: Madeira uharte (pl.). (Cf. fr. *Madère*, baina port., ing. al. etab. *Madeira*).

Madrid: Madril.

Magallanes: Magallaes [?] itsasartea. (Cf. port. *Magalhaes*, ing. fr. eta al. *Magellan*, it. *Magellano*, kat. *Magalhaes* [itsaskaria] baina *Magallanes* [itsasartea]. Euskal fonetika historikoaren legeen arabera *Magallaes* izango litzateke forma, baina ez dakit nik honelako izenetan noraino aplikatu daitekeen horrelako irizpide bat. *Magallaes*-ek, dena dela, badu beste alde on bat: espainieraren eta frantsesaren arteko desberdintasuna gaintzeko bide bat eskaintzen duela).

Malaca, península de: Malakar erdiuhartea. (Cf. mal. *Malaka*).

Malaga: Malaga. (Cf. lat. *Malaka*, fr. *Malaga*).

Malasia: Malaisia. (Cf. mal. *Malaya*, ing., fr., al. [eta *El Pais*-eko gaztelania] *Malaysia*, kat. *Malaisia*, It. *Malesia*, port. *Malásia*, pol. *Malezja*).

Maldivas, islas: Maldiba (pl.), Maldiba uharte (pl.).

Mali: Mali. (Cf. fr. *Mali*).

Mallorca, Isla: Mallorka uhartea. (cf. lat. *Majorica*; kat. *Mallorca*).

Malta: Malta. (Cf. malt. *Malta*).

Mancha: Mantxako ubidea edo kanala.

Marruekos: Maroko. (Arabierazko *marukus*-etik; cf. fr. *Maroc*, port. *Marrocos*; -cc- edo -kk- grafia ez dagokio euskarari: cf. pol *Maroko*).

Marsella: Marsella. (Cf. okz., port. *Marselha*, it. *Marsiglia*, fr. *Marseille*, kat. *Marsella*. Euskal tradizioan, Hegoaldean (eta J. Etxeparerengan) *Marsella* idazten da, eta Iparraldean *Marseilla* eta *Marseille*. Badirudi

hobestekoa dela euskaraz *-ella* (ez *-eilla*) amaiera: cf. Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko udalen izendegia-n Korella*).

Martinica, isla: Martinika uharte.

Mauricio, islas: Maurizio uharte (pl.).

Mediterráneo, mar: Mediterranear, Mediterranear itsaso. (Cf. lat. *Mediterraneum mare*, it. *Mediterràneo*, ing. *Mediterranean*, al. *Mittelländisches*. Badirudi euskaraz *-ar* amaieraz egokiago ematen den adjetibo baten aurrean gaudela. Dena dela, badirudi *-io* (*-eo*-ren ordez) amaiera, erdarari arbitrarioki ihes egiteko bide bat besterik ez dela. Alemanieraren [eta serbo-kroazieraren: *Sredozemlje*] arabera, *Lurrarteko Itsasoa* 1932ko *Lutelestia-n*).

Méjico: Mexiko. (Cf. pol. *Meksyk*). **Golfo de Méjico:** Mexikoko golkoa.

Melanesia: Melanesia. (1932ko *Lutelestia-n Melanesia*).

Menorca: Menorka. (Cf. kat. *Menorca*, Lat. *Minorica*).

Milan: Milan. (Inguruko hizkuntzen jokabidearen arabera [cf. it. *Milano*, fr. *Milan*, port. *Milão*, kat. *Milá*] badirudi euskaraz [cf. *sakristau*] *Milau* behar lukeela, baina euskal tradizio guztian, Iparraldeko nahiz Hegoaldekoan, *Milan* idatzi da).

Miño, río: Miño ibai. (Cf. ing., fr., *Miño*, al. *Minho*, *Miño*).

Misisipí, río: Misisipi ibai. (Cf. fr. *Mississippi* [ik. 2.0] nahiz azken urteotan, Amerikako ingelesaren eraginez *-ppi* idaztea boladan dagoen; 1932ko *Lutelestia-n*, euskaraz aurkitu dudana lekukotasun bakarrean, *Misisipi*; izen arrotz-tzat harturik, *Mississippi* idatzi behar litzateke).

Moldavia: Moldabia.

Mónaco: Monako. (Cf. okz. *Monegue*).

Montevideo: Montebideo. (Euskal lekukotasun guztiak [30en bat agerrialdi, gehienak mende honetakoak], *-b-z* idatziak agertzen dira; Iparraldeko zenbait testutan *Montebido* agertzen da).

Moscú: Moskou *edo* Mosku. (Cf. err. zaharra *Moskov'*, fr., kat. *Moscou*, ing. *Moscow*, port. *Moscovo*; euskal tradizioan, *Moscoua* (*Xarlemagne* pastoralean), *Moskou* (1932ko *Lutelestia-n* eta J. Eguskitzak), *Moscou* (J. Barbierrek), *Mosku* (K. Mitxelenak).

Mozambique: Mozanbike.

Muerto, mar: Itsaso Hil. Ik. **Rojo, mar.**

Munich: Munich. (Cf. goi-alemaniera zaharra *Munih*, fr., ing. *Munich* (bietan [-ik]), kat. *Munic*, it. *Mònaco (di Baviera)*; "euskal grafia" ez litzateke *Munitx* (cf. *Eguna* egunkaria) izango, *Munik* baizik).

Nájera: Naiara. (Hori da Erdi Aroko forma, *Hiztegia 2000*-en jaso. Euskal literatur tradizioan *Naiera* (Laphitze), *Najera* (Egiategi, J. I. Arana. J. M. Barandiaran) eta *Naxera* (J. I. Arana) aurkitu ditut).

Nantes: Nantes. (Cf. lat. *Namnetes*, *Nannetes*; ik. 2.3 eta 2.4).

Nápoles: Napoles. (Cf. lat. *Neapolis*, fr., ing. *Naples*, port. *Nápoles*, kat. *Nàpols*, it. *Nàpoli*, pol. *Neapol*).

Nazaret: Nazaret.

Negro, mar: Itsaso Beltz. Ik. **Rojo, mar**.

Nepal: Nepal.

New York. Ik. **Nueva York**.

Nicaragua: Nikaragua. **Lago de Nicaragua:** Nikaragua aintzira.

Nicea: Nizea. (Cf. lat. *Nicaea*).

Niger: Niger.

Nigeria: Nigeria.

Nínive: Ninibe. (Lat. *Niniva*, *Ninive*. Euskal tradizioan, mende hone-tan forma *-b*-dunak dira nagusi. Iparraldean Zerbitzarik eta L. Leonek *Niniba* (cf. Leizarraga *Niniua*) idazten dute, baina M. Etchehandyk *Hasera*-n (1979) *Ninibe*).

Norteamérica. Ik. **América**.

Noruega: Norvegia, Noruega. (Cf. lat., err., it. *Norvegia*, pol. *Norwe-gia*, port., kat. *Noruega*; euskal testuetan, *Noruega*-z gainera, J. Mirandere-n *norvergar* bat dago).

Nueva Caledonia: Kaledonia Berri.

Nueva Guinea: Ginea Berri.

Nueva Orleans: New Orleans.

Nueva York: New York. (Cf. fr., it. *New York*).

Nueva Zelanda: Zelanda Berri. (Cf. fr. *Nouvelle-Zélande*, port. *Nova-Zelandia*, kat. *Nova Zelanda*, it. *Nouva Zelanda*, pol. *Nowa Zelandia*; euskaraz *Zelanda Berria* 1932ko *Lutelestia*-n).

Occitania: Okzitania. (Cf. lat., *Occitania*, okz., kat. *Occitània*).

Oceania: Ozeania. (Hiribarrenek eta 1932ko *Lutelestia*-n *Ozeania*).

Odesa: Odesa. (Cf. ukr. *Odesa*, err., *Odessa*).

Omán: Oman. (Cf. fr., ing., al. *Oman*).

Oporto: Porto, Oporto. (Cf. fr., al. *Porto*, it. *Oporto*, *Porto*, ing., kat. *Porto*, *Oporto*).

Orange, río: Oranje ibai. (Cf. afrik., al. *Oranje*, fr. *Orange*, *Oranje*).

Pacífico, océano: Ozeano Bare. (Cf. 1932ko *Lutelestia*-n *Itsasandi Barea*).

Países Bajos: Herri Behere (pl.). Ik. **Holanda**.

Pakistán: Pakistan.

Palestina: Palestina. (Hori da Iparralde nahiz Hegoaldeko tradizioko forma).

Panamá: Panama. **Canal de Panamá:** Panamako ubide *edo* kanal.

Paraguay: Paraguai. (Cf. port., kat. *Paraguay*, pol. *Paragwaj*; Ik. 2.0).

París: Paris. (Iparraldeko *Parise* aski berria da, eta ez da oraino erabat hedatua bertan).

Parnaso: Parnaso.

Pekin: Pekin (Beijing). (Cf. kat. *Pequin*, port. *Pequim* it. *Pechino*, pol. *Pekin*).

Peloponeso: Peloponeso. (Cf. fr. *Péloponnèse*, kat. *Peloponès*, Pol. *Peloponez*).

Pensilvania: Pensilvania. (Cf. it. *Pensilvania*, kat. *Pennsilvània*, fr. *Pennsylvanie*).

Persia: Pertsia. (Cf. Lat *Persia*, pol. *Persja*; tradizioko forma, Iparraldean eta Hegoaldean, *Persia* da; Iparraldeko hainbat idazlek *Persa* erabili izan dute). *Golfo Pérsico*: Pertsiar Golkoa.

Perú: Peru.

Piamonte: Piemonte. (Cf. lat. *Pedemontium*, it. *Piemónte*, rom. *Piemunt*, fr. *Piémont*, kat. *Piemont*, port. *Piemonte*; euskaraz hiru agerraldi aurkitu ditut, Iparraldekoak, *Piemont(e)*-renak).

Pirineos, montes: Pirinio (pl.), Pirinio mendi (pl.).

Polinesia: Polinesia. (Cf. port. *Polinésia*, kat. *Polinèsia*, it. Polinesia, pol. *Polinezja*; 1932ko *Lutelestia*-n *Polinesia*).

Polonia: Polonia. (Cf. lat. *Polonia*).

Portugal: Portugal.

Praga: Praga. (Cf. fr., ing. *Prague*, lat., it., port., kat., err., pol. *Praga*; ik. 2.3).

Provenza: Probentza, Provenza. (Euskal tradizioan (Larregi, Orixe, K. Mitxelena) *Provenza* idatzi da; grafia egokitzekotan ez da ikusten zergatik *tz* onartu behar litzatekeen eta *b* ez; ik. 1. 2, b).

Prusia: Prusia. (Cf. al. *Preußen*, pol. *Prusy*).

Puerto Rico: Puerto Rico.

Qatar: Katar. (Cf. al. *Katar*).

Quito: Quito.

Reino Unido: Erreinu Batu.

República Dominicana: Dominikar Errepublika.

Reykjavik: Reykjavik. (Cf. it. *Reykjavik*).

Rhin, río: Rin ibai. (Cf. kat. *Rin*, it. *Reno*, pol. *Ren*).

Ródano, río: Rodano ibai. (Cf. lat. *Rhodanus*, it. *Ròdano*, port. *Ródano*, rom. *Rodan*, kat. *el Roine*, *Ròdan*, pol. *Rodan*; euskal tradizioan Orixe (Mireio), *Rodano*).

Rodas: Rodes, Rodas. (Cf. lat. *Rhodus*, *Rhodos*, turk. *Rodos*, it. *Ròdi*, port., kat. *Rodes*; euskal tradizioan *Rhodes* (Leizarraga, 1828ko *TB*), *Rodes* (Ibiñagabeitia), *Rodese* (Lapitz), *Rhode* (Haraneder), *Rhodas* (Etxahun), *Rodas* (Anabitarte, Aresti, Kerexeta, 1980ko *IB*), *Errhodes* (Duvoisin), *Errode* (Olabide), *Erroda* (1983ko *TB*).

Rojo, mar: Itsaso Gorri. (Are Leizarragak *Itsaso Gorri* erabiltzen du; *Itsas Gorri*-ren di agerraldi aurkitu ditut, bata Lardizabalena eta bestea Hiribarrenena: biak, bestalde, *Itsaso Gorri* ere erabiltzen dute).

Roma: Erroma.

Rosellón: Roselloi. (Cf. okz. *Rosselhon*, kat. *Rosellò*, it. *Rossiglione*, fr. *Roussillon*).

Rouen. Ik. **Ruán**.

Ruán: Erroan. (Garibaik Esaera Zaharretan erabili zuen forma onartzen bada).

Ruanda: Ruanda. (Cf. fr. *Ruanda*, *Rwanda*, al., port. *Ruanda*).

Rumania: Errumania.

Rusia: Errusia.

Sahara: Sahara.

Sajonia: Saxonia. (Cf. lat. *Saxonia*).

Salamanca: Salamanka.

Salónica: Salonika, Tesalonika. (Cf. lat. *Thessalonica*; turk. *Selanik*, port. *Salónica* (lehen *Tessalónica*), it. *Salonicco* (lehen *Tessalónica*), kat. *Salònica* (lehen, eta orain berriro, *Tessalònica*), Collins Hiztegiaren arabera, *Salonika*, *Salonica* “the English name for *Thessaloniki*”, eta A. Cherpillod-en arabera (op. cit.) *Salonique* ‘nom porté par la ville [*Thessalonique*] depuis sa prise par les Turcs en 1430 jusqu’à la fin de la Seconde Guerre Mondiale”. *Tessalonika*, grekoek ematen dioten izena da, eta *Salonika* turkoek ematen diotena.

Salzburgo: Salzburgo, (Cf. lat. *Salisburgum*, al. *Salzburg*; ik. 2. 2).

San Milán de la Cogolla: Donemiliaga Kukula.

Santander: Santander. (Hori da euskaraz izkribuz beti agertzen den era; ahoz, antza denez *Sanandere* aski zabaldua dago).

Sardaigne: Ik. **Cerdeña**.

Segovia: Segobia.

Sena, río: Sena ibai. (Cf. lat. *Sequana*, fr. zaharra *Signe*, it. *la Senna*, kat. *Sena*).

Serbia: Serbia.

Sevilla: Sebilla. (*Sibilia* ere erabili izan da, eta are *Sibiria*).

Siena: Sena. (Cf. lat. *Sena*, it. *Sièna*; hegoaldeko tradizioan [25en bat agerraldi] beti *Sena* idazten da; Iparraldekoan *Siena* (Intxauspe, Lapitze, Arradoi), *Siene* (S. Pouvreau), *Sienna* (Zerbitzari).

Sicilia: Sizilia. (Cf. al. *Sizilien*).

Singapur: Singapur (Cf. mal., port. *Singapura*, tai *Singkhapor*, fr. *Singapour*, al., kat. *Singapur*).

Siracusa: Sirakusa. (Cf. lat. *Siracusae*, it., port., kat. *Siracusa* [kat. zaharra *Saragossa*], al. *Syrakus*).

Siria: Siria (Cf. lat *Syria*, it., kat., port. *Siria*: euskal tradizioan, mende honetan, Hegoaldean eta Iparraldean beti *Siria*).

Somalia: Somalia.

Sudafricana, República: Hego Afrika, Hego Afrikako Errepublika.

Sudamérica. Ik. **América**.

Sudán: Sudan.

Suecia: Suedia, Suezia. (Cf. lat. *Suecia*, sue. *Sverige*, port. *Suécia*, kat. *Suècia*, it., *Svezia*, pol. *Szwecja* (errusieraz ere txistukariz); fr., ing., al. *-d-*; euskal tradizioan, Iparraldean *Sueda*, Hegoaldean *Suezia*, Mirandek *Suedia*).

Suez, canal de: Suez(ko) ubide, kanal. (Cf. ing. *Suez canal*, al. *Sues-Kanal*).

Suitza: Suitza. (Cf. ing. *Switzerland*, it. *Svizzera*; euskal tradizioan Iparraldean *Suisa*, Hegoaldean *Suiza*, K. Enbeitak *Suitza*).

Tailandia: Tailandia. (Cf. it. *Tailandia*, kat. *Tailàndia*, port. *Tailàndia*. err. *Tailand*).

Taiwan: Taiwan.

Támesis, río: Tamesis ibai. (Cf. lat. *Tamesis*, *Tamesa*, fr. *Tamise*, port. *Tamisa*, kat. *Tàmesi*, it., *Tamigi*, ing. *Thames*, al. *Themse*, pol. *Tamiza*).

Tbilisi (lehen Tiflis): Tbilisi. (Cf. geor., errus. *Tbilisi*; Errusierazko izen zaharra *Tiflis*).

Tebas: Tebas.

Termópilas: Termopila (pl.).

Terranova: Temua. (Hori da Iparraldeko ohizko forma).

Tesalia: Tesalia. (Cf. lat. *Thessalia*, it. *Tessalia*).

Tiro: Tiro.

Tirreno, mar: Tirreniar itsaso. (Cf. lat. *Tyrrhenus*, it. *Tirrèno*).

Togo: Togo.

Tokio: Tokio. (Cf. it., al., err. *Tokio*, port. *Tóquio*).

Toulouse: (Frantziako, Okzitaniako) Tolosa. (Cf. lat., okz., *Tolosa*, Ik. 2.4).

Toscana: Toskana. (Cf. al. *Toskana*).

Tracia: Trazia. (Cf. lat. *Thracia*, port. *Trácia*, kat. *Tràcia*, it. *Tracia*).

Troya: Troia. (Ik. 2.5).

Túnez [herrialdea]: Tunisia, Tunizia. (Cf. ar. *tunisiyya*, port., kat. *Tunisia*, it. *Túnisia*, pol. *Tunezja*; *Tunizia* Arestik erabili zuen).

Túnez [hiria]: Tunis, Tuniz. (Cf. lat. *Tunes*, *Tynes*, port. *Túnis*, it. *Tunisi*, fr., kat. *Tunis*).

Turquía: Turkia.

Ucrania: Ukraina. (Cf. ukr., err., pol. *Ukraina*, kat. *Ucràina*, it. *Ucraina*, ing., al. dan., *Ukraine*, hol. *Oekraïne*; euskaraz *-inia* amaierak badirudi ez duela inongo oinarririk).

Unión Soviética: Sobietar Batasuna.

Unión de Repúblicas soberanas: Errepublikak Burujabeen Batasuna.

Urales, montes: Ural (pl.), Ural mendi (pl.). (1932ko *Lutelestia*-n *Uralak*). **Ural, río:** Ural ibai.

Uruguay: Uruguai. (Cf. port., kat. *Uruguai*, pol. *Urugwaj*; Ik. 2.0).

Uzbekistán: Uzbekistan. (Cf. err. *Uzbekistan*, uzbek. *Uzbekiston*).

Valencia: Balentzia, Valencia. (Euskal tradizioan, *Balentzia* Iparraldean (Lapitze, Joanategi) aurkitu dut, eta *Valencia* Hegoaldean; (1932ko *Lutelestia*-n *Balentzia*); grafia egokitzekotan ez da ikusten zergatik *tz* onartu behar litzatekeen eta *b* ez; ik. 1.2, b).

Valladolid: Balladolid, Valladolid. (Euskaraz *Balladoli(d)* eta *Valladolid*-en lekukotasunak daude).

Varsovia: Varsovia.

Vaticano, El: Batikano. (Ik. 2.5).

Venecia: Venezia. (Cf. lat. *Venetia*; formarik hedatuena, are Iparraldean *Venezia* da).

Venezuela: Benezuela.

Viena: Viena. (Cf. port., kat. *Viena*).

Vietnam: Vietnam.

Vladivostok: Vladivostok.

Washington: Washington.

Yakarta: Jakarta. (Cf. mal. *Jakarta* [1972ko ortografi erreforma baino lehen *Djakarta*], ing. *Jakarta*).

Yemen: Jemen?, Yemen?, Iemen? (Cf. al., pol. *Jemen*. Euskaraz *Jemen* gogorregia gertatzen bada, *Yemen* onar daiteke, nahiz *y*-a euskara batuko ortografian erabiltzen ez den: cf. it. *Yemen* (baina *iemenita*), fr. *Yémen* (eta *yéménite*), irentsi gabeko maileguen grafiaz; hildo beretik onar daiteke *Iemen*, euskara batuan eskuarki onartzen ez den *ie*- batez: cf. katalanez *Iemen*, nahiz hizkuntza horretan ez dagoen *ie*-z hasten den hitzik).

Yucatán: Yucatan. (Hitz arrotz-tzat hartua: cf. al. kat. *Yucatán*, nahiz hizkuntza horietan ez dagoen *yu*-z hasten den hitzik; ik. **Yemen**).

Yugoslavia: Jugoslabia. (Cf. s.-kr. eslob. al., port., pol. *Ju-*; dena dela *Yugoslabia* ere onar daiteke (cf. fr. *Yougoslavie*), **Yemen** sarreran azaldu diren arrazoiakgatik).

Zambia: Zanzia.

Zurich: Zurich. (Cf. lat. *Turicum*, it. *Zurigo*, port. *Zurique*. Ik. gorago **Munich**).